

## **GAZTEEN AUTONOMIA ETA EMANTZIPAZIORAKO DIRU-LAGUNTZA LERRAK SORTZEAREN ALDEKO MOZIOA**

Urte dezente pasa dira deitutako krisi ekonomikoak lehertu zenetik. Dagoeneko perspektiba nahikoa dugu krisia ez dela momentuko gertaera bat jakiteko, etorri den moduan pasako dena, egiturazko gertaera dela baizik; eszenatoki ekonomiko eta sozial berri baten aurrean jartzen gaituena, alegia.

Horren aurrean Administrazioak ezin du zeruari begira geratu, oligopolioen Olinpotik jainko errukitsu batek zeruak eta lurak eraldatu eta jendearentzat modu duinean bizitzeko baldintzak sortuko dituen zain. Hori ez da gertatuko. Administrazioak egin behar du lan hori herritarrek etorkizun duin bat edukitzeko. Herritar guztiek, adin, genero edota jatorria edozein izanda ere.

Eta etorkizunaz ari bagara, etorkizuna gazteak direla gauza nabarmena da, datu biologikoa da. Jendarteak ez du etorkizun duinik izango gazteriak etorkizun duina ez badu. Hau da, Lasarte-Oriak ez du etorkizun duinik izango gure gazteek etorkizun duina ez badute. Zentzu honetan administrazioak, Udalak gure kasuan, gazteen etorkizun duin baten defentsan emango dituen pauso guztiak onuragarriak izango dira, ez bakarrik gazteentzat, herritar guztientzat ere bai.

Marko honetan, autonomia eta emantzipazioa, etxea eta lana alegia, ezinbesteko baldintza eta abiapuntuak dira gure gazteek beraien bizi-proiektua garatu ahal izateko. Honetaz guztiaz kontziente, EH Bilduren Udal Taldeak ondoko akordioak onartzea proposatzen dio Lasarte-Oriako Udalbatzarrari:

- 1.- Etxebizitza alokairurako diru-laguntza lerro bat sortzea gazteei zuzenduta espezifikoki.
- 2.- Gazteen autoenpleguari diru-laguntza lerro espezifikoki bat sortzea (lokalaren alokairu gastuak, proiektuaren gauzatze gastuak, egokitze lanak, tasak eta abar).